

.EUS Domeinuak 92 Aitzindari ditu

Eguerdi on danoi eta eskerrik asko gaur hemen izateagatik.

Gaur .EUS domeinuaren ibilbidean beste urrats handi bat ematera goaz. Apirila bukaeran aditzera eman genuen gisan, gaur hasi eta abenduaren 3ra arte, Euskararen Nazioarteko Egunera arte, .EUS Domeinuaren Aitzindariak izango dira aktibatuak egongo diren .EUS domeinu-izen bakarrak. Hilabeteko epea eman genuen proposamenak bidaltzeko eta beste hilabete eman dugu .EUS domeinu-izen horiek erregistratu, aktibatu eta ikusgarri izateko urrats guztiak ematen. Eta prozesu horren emaitza eta balorazioa egin nahi dugu gaur.

Guztira, 113 domeinu-izen ezberdin proposatu ziren, 92 entitatearen eskutik. Hasiera batean 90 Aitzindari hautatuko genituela esan genuen, baina gure muga tekniko erreala 93 zenbakian zegoen. Horregatik, erabaki bat hartu genuen: .EUS Domeinuaren Aitzindari izan nahi duten 92 entitateei aukera emango geniola horretarako. Hortaz, entitate bakoitzak soilik domeinu-izen bakarra eska zezakeen. Horixe zen hautaketarako jarri genuen irizpide bakarra.

.EUS Domeinuaren Aitzindarien zerrenda, zerrenda oso anitza da, izaera, dimentsio eta jatorri ezberdineko entitateak biltzen dituelako. Zenbaki batzuk eman ahal ditugu, duela bi hilabete egin genuen kategorizaziotik abiatuz.

92 horietatik **9 enpresak** dira (ordena alfabetikoan):

| | |
|-------------------------|--|
| Bankoa Crédit Agricole | www.bankoa.eus |
| Elay SL | www.elay.eus |
| Euskaltel | www.gozatueuskaltel.eus |
| Grupo ULMA, S. Coop. | www.ulma.eus |
| Hamaika Itzulpen SM | www.11itzulpen.eus |
| If | www.if-matxikote.eus |
| Iparragirre Eraikuntzak | www.iparragirre.eus |
| Kutxabank SA | www.kutxabank.eus |
| Laboral Kutxa | www.laboralkutxa.eus |

23 erakunde publiko:

| | |
|--|--|
| Atarrabiako Udala | www.villaba-atarrabia.eus |
| Autoridad Portuaria de Pasaia Pasaiaiko Portuko Agintaritza | www.pasaiaport.eus |
| Baztango Udala | www.baztan.eus |
| Bilboko Portuko Agintaritza | www.bilbaoport.eus |

| | |
|---|--|
| Donostiako Udala Ayuntamiento de San Sebastián | www.donostia.eus |
| Eibarko Udala | www.eibar.eus |
| ELA Euskal Sindikatua | www.ela-sindikatu.eus |
| Etxepare Euskal Institutua | www.etxepare.eus |
| Euskal Herria Bildu | www.ehbildu.eus |
| Eusko Jaurlaritza | www.basquecountry.eus |
| Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea EJJIE SA Sociedad Informática del Gobierno Vasco | www.ejie.eus |
| Eusko Legebiltzarra - Parlamento Vasco | www.legebiltzarra.eus |
| Gipuzkoako Foru Aldundia | www.gipuzkoa.eus |
| HAZI Fundazioa | www.hazi.eus |
| Hendaiako Herriko Etxea Mairie d'Hendaye | www.hendaia.eus |
| Langile Abertzaleen Batzordeak LAB | www.lab.eus |
| Sopelako Udala | www.sopela.eus |
| SPRI SA | www.spri.eus |
| Tolosako Udala | www.tolosa.eus |
| Udalbiltza | www.udalbiltza.eus |
| UEMA | www.uema.eus |
| Uztaritzeko Herria | www.uztaritze.eus |
| Zeraingo Herria | www.zerain.eus |

14 hedabide:

| | |
|---|--|
| ARGIA. Komunikazio Proiektua | www.argia.eus |
| Berria | www.berria.eus |
| Bertako Hedabideak - HITZA guztien ordezko | www.hitza.eus |
| Bilbo Hiria Irratia | www.bilbohiria.eus |
| Eguzki Irratia | www.eguzki.eus |
| Euskal Irrati Telebista (EiTB) | www.eitb.eus |
| Goiena Komunikazio Taldea | www.goiena.eus |
| Hamaika Telebista | www.hamaika.eus |
| HEKIMEN Euskal Hedabideen | www.hekimen.eus |

| | |
|------------------------|--|
| Elkartea | |
| Iparla Elkarte | www.kazetainfo.eus |
| Naiz | www.naiz.eus |
| Radiokultura | www.radiokultura.eus |
| Tokikom SL | www.tokikom.eus |
| ZUZEU – Xoraturikan SL | www.zuzeu.eus |

Eta, azkenik, **46 entitate euskal kulturgintza barruan kokatu ditugunak** (mota eta sektore ezberdinetako entitateak barnebiltzen direlarik).

| | |
|--|--|
| AEK | www.aek.eus |
| Ametzagaiña AIE | www.euskarabildua.eus |
| Aranzadi Zientzia Elkarte | www.aranzadi.eus |
| Ardatz Kultur Elkarte - IKA | www.ikaeuskaltegiak.eus |
| Astigarragako Herri Eskola | www.astieskola.eus |
| Athletic Club | www.athletic-club.eus |
| Azkue Fundazioa | www.azkuefundazioa.eus |
| Bagera Donostiako Euskaltzaleen Elkarte | www.bagera.eus |
| Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarte | www.baieuskarari.eus |
| Bertsozale Elkarte | www.bertsozale.eus |
| Bizi Sagardoa | www.sagardoa.eus |
| CodeSyntax (Sustatu) | www.sustatu.eus |
| Dantzan.com, dantza susatu eta hedatzeko elkarte | www.dantza.eus |
| Delorean | www.delorean.eus |
| Deustuko Unibertsitatea | www.deusto.eus |
| DYA – Asoc. De Ayuda en Carretera | www.dya.eus |
| Elhuyar | www.elhuyar.eus |
| Elikaherria | www.elikaherria.eus |
| Elkar Fundazioa | www.elkar.eus |
| Emun Koop. E. | www.emun.eus |
| Erein Argitaletxea | www.erein.eus |
| Errigora | www.errigora.eus |
| Euskal Herrian Euskaraz (EHE) | www.euskalherrianeuskaraz.eus |
| Euskal Herriko Ikastolak | www.ikastola.eus |

| | |
|--|--|
| Euskal herriko Txistulari Elkartea | www.txistulari.eus |
| Euskal Idazleen Elkartea | www.idazleak.eus |
| Euskal Kultur Erakundea | www.eke.eus |
| Euskaltzaleen Topagunea | www.topagunea.eus |
| Euskararen Gizarte Erakundeen KONTSEILUA | www.kontseilua.eus |
| Euskokultur Fundazioa | www.euskokultur.eus |
| Gaindegia | www.gaindegia.eus |
| Garabide Elkartea | www.garabide.eus |
| Iparra, Euskara Mundutik zabaltzen | www.iparra.eus |
| Jakin Fundazioa | www.jakin.eus |
| Kiribil Irakaskuntza Kooperatiba | www.kiribil.eus |
| Laguntasuna Euskal Folklore Elkartea | www.laguntasuna.eus |
| Lauro Ikastola, Koop. E. | www.lauroikastola.eus |
| Ordizia Rugby Elkartea | www.ordiziarugby.eus |
| Otxoa de Barandika Fundazioa | www.otxoadebarandika.eus |
| Sare | www.sare.eus |
| Seaska, Ipar Euskal Herriko Ikastolen Federazioa | www.seaska.eus |
| Sortzen Elkartea | www.sortzen.eus |
| Ttalaka Kultur Elkartea | www.ttalaka.eus |
| Udako Euskal Unibertsitatea (UEU) | www.ueu.eus |
| Ulibarri Euskaltegia | www.ulibarri.eus |
| Urtxintxa -Gipuzkoa- | www.urtxintxa.eus |

Horietatik guztietatik **22, PuntuEus Fundazioko kide** dira.

Horiek guztiak dira .EUS Domeinuaren Aitzindariak eta, gaur, hain zuzen, .EUS Domeinuaren Aitzindariari merezi duten lekua eman nahi izan diegu. Horregatik 92 horietatik 7 ditugu gurekin mahaian, .EUS Domeinuaren Aitzindari izatearen nahiaz eta garrantziaz hitz batzuk esateko. Eta, Aitzindarien ondoren, PuntuEus Fundazioko lehendakari Juan Mari Torrealdaik hartuko du hitza.

Mahaian dauden .EUS Domeinuaren Aitzindariak honakoak dira (ordena alfabetikoan):

Aizpea Goenaga Mendiola

Etxepare Euskal Institutua
zuzendaria

Alberto Barandiaran Amillano

Hekimen
Zuzendaria

Cristina Uriarte Toledo

Eusko Jaurlaritza
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako Sailburua

Jon Berasategi

Athletic Club
Zuzendari Orokorra

Mertxe Mujika Balantzategi

AEK
Koordinatzaile nagusia

Michelle Mounios-Adurriaga

Hendaiaiko Herriko Etxea
Euskararen eta Hizkuntza Politikaren arduraduna

Nerea Enbeita Enbeita

Euskaltel
Euskara Planeko Koordinatzailea

PuntuEus Fundazioaren balorazioa

Beste ezeren aurretik, eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu .EUS Domeinuaren Aitzindari izateko erabakia hartu duten 92 entitateei.

PuntuEus Fundazioarentzat eta .EUS proiektuarentzat berebiziko garrantzia du Aitzindarien Programak. Batetik, duela bi hilabeteko aurkezpenean jartzen genituen bi helburuengatik: .EUS Domeinuaren sustapena eta bultzada ekonomikoa. Zentzu horretan, ekarpena modu finantzarioan edo espezieetan egiteko aukera irekitzeak, bi helburuei ondo baino hobeto erantzuteko aukera irekiko digu. Modu horretan, .EUS Domeinuaren zabalpenerako kanalak eta euskarriak modu esponenzialean hazi zaizkigu eta, era berean, .EUS proiektuak orain datorkion bidearen hasiera duintasunez egiteko adina bultzada ekonomiko jaso du. Beraz, mila esker berriro, .EUS Domeinuaren Aitzindariari esker .EUS domeinuaren zabalkundea eta ibilbidea benetan oparoa izango dela aurreikusi dezakegulako.

Horiek ziren Aitzindarien Faseari jarri genizkion helburuak, baina bagenekien Aitzindarien Fasetik beste argazki bat ere atera ahal izango genuela. Bagenekien .EUS

Domeinua martxan jartzera bidean, komunitatearen partetik izango duen babesari nolabaiteko neurria hartzen lagunduko zigula. Eta zentzu horretan, 92 entitate hauen artean ematen den maila guztietako aniztasuna .EUS Domeinuaren izaera inklusiboaren isla zuzena dela uste dugu. Guk .EUS Domeinua proiektu inklusibo moduan definitzen dugu eta inklusiboa izango bada, badakigu aniztasun hori hasieratik berrmatuko delako izango dela. Hortaz, gure ustez, Aitzindarien Fase honek .EUS Domeinuaren izaera inklusiboa bera ere indartzea lortu du. Argi utziz, bide batez, .EUS Domeinua komunitate oso baten domeinua dela. Beraz, PuntuEus Fundazio osoaren partetik, mila esker .EUS proiektuaren parte sentitzeagatik.

Aitzindariak kategoriatan banatuta: www.aitzindariak.eus

Hurrengo fasea: abiarazte-aldia

Bukatzeko, etorkizun hurbilari buruzko zenbait datu. Duela 2 hilabete esan genuen moduan, Aitzindarien Fasearen ondoren, abiarazte-aldia etorriko da. Abiarazte aldian mota guztietako erakunde publiko, elkarte eta enpresek euren domeinu-izenak eskatu ahal izango dituzte, lehentasunez, publiko orokorrera ireki aurretik.

Gaur esan dezakegu, abiarazte-aldia zehazki irailaren 16an hasi eta azaroaren 18an bukatuko dela. Eta denbora tarte horretan eskatzen diren domeinu-izen guztiak abenduaren 3an aktibatuko dira, Euskararen Nazioarteko Egunean. Eta esan bezala, era berean, egun berezi horretan .EUS Domeinuaren Fase Irekia edo Orokorra hasiko da.

Mila esker.



PuntuEus Fundazioa

www.domeinuak.eus || info@domeinuak.eus || +34 665770945